

Lehen hezkuntza (LH3 eta LH4)

SAIOAK: Aurretik 1 / Ekoetxea 2 / Ondoren 3



IKASGAIA	GAI EKOSOZIALAK	INGURUMEN-POLITIKAK
Natura, gizarte, kultura ingurunearen ezagutza	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ekodependentzia</li> <li>Krisi zibilizatorioa</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Biodibertsitatea</li> <li>Ohitura jasangarriak</li> </ul>



## Ikas egoeraren markoa

**TESTUINGURUA.** Klima-aldaketak modu kezagarrian eragiten dio gure planetari. Nolakoa imajinatzen duzu zure hiria edo herria 2050. Urtean? Berdegune gehiago izango ditu? Uholdeak ekiditeko neurriak egongo dira? Ibaiak ura eramango dute? Hondartzak desagertuta egongo dira? Aldaketa klimatikoa iritsi da. Orain gure esku dago ondorio horiek pairatzeko gure herriak eta gu geu prestatzea. Nondik hasi ordea?

### Abiapuntua

*Klima-aldaketaren gaia adin goiztiarrean sartzek bizitzan zehar iraungo duen ingurumen-kontzientzia garatzen laguntzen du. Haurrak harkorrakoak dira inguruneari eragiten dioten arazoei buruz ikasteko, eta horrek planetaren kontserbazioarekin arduratsuak eta konprometituak izatera bultzatzen ditu. Erabiliko diren muturreko irudiek dagoeneko komunitate askori eragiten dieten errealitateak erakusten dituzte eta errealitate horiei aurre egitean, ikasleek arazoaren larritasuna eta jarduteko beharra uler dezakete. Mugikortasuna, ura, hondakinak eta energia elkarrekin landuz gure ardurak zein diren ezagutuko dituzte.*

**AZKEN EKOIZPEN EDO PRODUKTUA.** Ikasle bakoitzak gure planetaren itxurako giltzarri bat eramango du etxera, bertan familiakoekin gaiaz hitz egin ahal izateko eta Ekoetxean ikasitakoa eguneroko presentean izateko.

## HELBURU KONPETENTZIALAK

- Klima aldaketaren kontzeptua ezagutzea, honen kausak eta ondorioak argi detektatzea.
- Berotegi efektua zer den ulertzea
- Ikasleek erabilitako irudiak mundu errealean klima-aldaketak dituen ondorioen adibide gisa ezagutu eta uler ditzatela.
- Irudietan agertzen diren ingurumen-arazoak identifikatzeko gaitasuna sustatzea ikasleengan, hala nola plastikoen eragindako kutsadura, lehorteak eta tenperatura-igoera.
- Ikasleek eguneroko bizitzan inplementatu ditzaketen soluzio praktikoetan pentsatzera motibatzea, hala nola plastikoen erabilera murriztea, ura eta energia aurrezteak, edo birziklatzea sustatzea.
- Talde-lana sustatzea, ikasleek beren ideiak eta irtenbideak parteka ditzaten, ikaskideen arteko lankidetzak eta ikaskuntza sustatuz.
- Konpromiso pertsonala edo taldekoa ezartzea, non ikasle bakoitzak gutxienez ekintza zehatz bat aukeratu duen, bere komunitatean klima-aldaketari aurre egiten laguntzeko.





## Curriculumaren zehaztapenak

## NATURA, GIZARTE ETA KULTURA INGURUNEAREN EZAGUTZA

FUNTZ. KONP	DESK	KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK	OINARRIZKO JAKINTZAK
HKK KE STEM KD KPSII HK EK KAKK	1,3 1,2 1,2,4,5,6 1 4 1,4 1 1,2	<b>5. Natura-, gizarte- eta kultura-ingurunekeko elementu edo sistemen ezaugarriak identifikatzea eta aztertzea, eta horien antolamendua eta haien arteko harremanak ezartzea, kultura- eta natura-ondarearen balioa ezagutzeko eta hura kontserbatzeko eta hobetzeko ekintzei ekiteko, erabilera arduratsu eta iraunkor baten bidez.</b>	<p>5.1 Natura-, gizarte- eta kultura-ingurunekeko elementuen ezaugarriak, antolamendua eta propietateak identifikatzea, ikerketa-metodologiaren bidez eta tresna eta prozesu egokiak erabiliz.</p> <p>5.2 Natura-, gizarte- eta kultura-ingurunekeko elementuen arteko konexio errazak identifikatzea, haien artean ezartzen diren harremanak ulertzen direla erakutsiz.</p> <p>5.3 Ideia zientifikoak aurrerapen teknologiko, kultural eta sozialekin erlazionatzea eta baloratzea, bizi-kalitatea hobetzea ahalbidetzen dutela onartuz.</p> <p>5.4 Natura- eta kultura-ondarea baloratzea eta babestea, hura ondasun komun gisa onartuz, ondare horretaz gozatzeko errespetuzko jokabideak hartuz eta berori kontserbatzeko eta hobetzeko ekintzak proposatuz.</p>	<p><b>A. Kultura zientifikoa</b></p> <p><b>2. Bizitza gure planetan</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Biodibertsitatea. Biodibertsitatearen zeregina biosferaren orekan. Biodibertsitatea mehatxatzen duten faktoreak (habitatako suntsitzea, espezie inbaditzaileak, klima-aldaketa, kutsadura, baliabideak gehiegi ustiatzea...).</li> </ul> <p><b>3. Materia, indarrak eta energia</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Beroa. Produktzio-iturriak. Temperatura. Egoera-aldaketak, material eroaleak eta isolatzaileak, neurgailuak eta aplikazioak eguneroko bizitzan.*</li> </ul> <p><b>C. Gizarteak eta lurraldeak</b></p> <p><b>1. Egungo munduaren erronkak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Lurra eta hondamendi naturalak. Unibertsoan gertatzen diren dinamikak, mugimenduak, elementuak, eta horien lotura Lurrean eta eguneroko bizitzan eta ingurunean eragina duten fenomeno fisiko jakin batzuekin.*</li> <li>- Berdintasun soziala eta baliabideak eskuragarri izatea. Espazioaren giza erabilerak eta produktio-jardueren bilakaera. Diruaren balioa eta kontrola eta ordainbideak. Biziraupen gizartetik, gainproduktoria.*</li> </ul> <p><b>2. Gizarteak denboran zehar</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Natura- eta kultura-ondarea. Natura-gune eta kultura-gune babestuek eta horien kokapena Euskal Autonomia Erkidegoan eta Euskal Herrian. Horien erabilera, zaintza eta kontserbazioa.*</li> </ul> <p><b>3. Alfabetatze zibikoa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Bide-segurtasuna. Zirkulazio-arauak, eta bide-seinaleak eta -marrak. Mugikortasun segurua oinezkoentzat eta garraiobideen erabiltzaileentzat.*</li> </ul>



## NATURA, GIZARTE ETA KULTURA INGURUNEAREN EZAGUTZA (BIGARREN ZIKLOA)

FUNTZ. KONP	DESK	KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK	OINARRIZKO JAKINTZAK
HKK KE STEM KD KPSII HK EK KAKK	1,2,3,5 1,2,3 1,2,5,6 2,3,5 4 1,2,3,4 1,2,3 1	<p><b>6. Gizakiak ingurunean egiten duen esku-hartzearen kausak eta ondorioak kritikoki aztertzea, maila soziala, ekonomikoa, kulturala, teknologikoa eta ekologikoa integratuz eta pertsonen eta planetaren errespetuarekin, zaintzarekin eta babesarekin kontsekuenteak diren ohitura iraunkorrak praktikan jarri, arazoei aurre egiteko, konponbideak bilatzeko eta konponbidean banaka eta elkarlanean jarduteko gaitasuna garatzeko.</b></p> 	<p>6.1 Pertsonen bizitzaren eta ingurunekeko elementu eta baliabideen gaineko haien ekintzen arteko erlazioa kritikoki aztertzea, giza ekintzak ingurunean eragiten dituen aldaketa positiboez eta negatiboez jabetuz eta bizitza bere forma desberdinetan errespetatuz.</p> <p>6.2 Planeta, pertsonak eta ingurunea zaintzeko, babesteko eta errespetatzeko ohitura iraunkor egokiak praktikan jartzea.</p> <p>6.3 Ingurunekeko arazo ekosozialak antzematea, ondorio kaltegarrienak dituztenak saihesten lagun dezaketek ekintzak modu kooperatiboan proposatuz.</p>	<p><b>A. Kultura zientifikoa</b></p> <p><b>1. Jarduera zientifikorako</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Zientziaren eta teknologiaren aurrerapenak, eta horiek bizi-baldintzen hobekuntzarekin eta ondorio ekosozialekin duten lotura.</li> </ul> <p><b>2. Bizitza gure planetan</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Gizakiak ekosistemekin duen harremana (hurbiltasunetik globaltasunera) gizartearen beharrak asetzeko. Gure planetako baliabide naturalen erabilera egokiak eta txarrak eta horien ondorioak.</li> <li>- Biodibertsitatearen zeregina biosferaren orekan.*</li> <li>- Ongizate fisikoa, emozionala eta soziala gure ingurune hurbilenean: tresnak, autokontzientzia eta ohitura osasungarriak.*</li> </ul> <p><b>C. Gizarteak eta lurraldeak</b></p> <p><b>4. Kontzientzia ekosoziala</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Krisi ekosozial globala. Giza ekintza: klima-aldaketaren kausa eta ondorioei eta horiek ingurunekeko paisaietan duten inpaktuari buruzko sarrera. Arintze-neurriak. Naturaren kontserbazioa eta babesa.*</li> <li>- Ekosistema naturalen eraldaketa eta degradazioa.</li> <li>- Giza ekintzen ondoriozko erantzukizun ekosoziala. Erantzukizun indibidualak eta kolektiboak.</li> <li>- Animaliekiko tratu txarra eta horren prebentzioa.</li> <li>- Bizi-ohitura jasangarriak. Kontsumo arduratsua, uraren eta energiaren erabilera, mugikortasun jasangarria eta hondakinen kudeaketa.*</li> </ul>
HKK KE STEM KD KPSII HK EK KAKK	1,2,3 1,2 4 1,4,5 4 1,3 2 1	<p><b>7. Natura-, gizarte- eta kultura-ingurunearen jarraitutasunak eta aldaketak behatzea, ulertzea eta interpretatzea, kausalitate-, aldiberekotasun- eta ondorengotza-erlazioak aztertuta, elementuen eta gertaeren arteko harremanak azaltzeko eta baloratzeko, eta iraunkortasun-irizpideen arabera jokatzeko.</b></p> 	<p>7.1 Historiaren etapak identifikatzea, gizakiok, Antzinarora arte, bizi izandako aldaketak deskribatuz, gizartearen bizimoduak alderatuz eta kausalitatea, aldiberekotasun eta jarraitutasun nozioak identifikatuz.</p>	<p><b>C. Gizarteak eta lurraldeak</b></p> <p><b>2. Gizarteak denboran zehar</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikerketarako eta lan-metodoetarako hastapenak, gaur egun esanguratsuak diren gertaerei eta auziei buruzko proiektuak egiteko, ikuspegi historikoaz eta genero-ikuspegiak kontuan izanda eta Historiaurrean eta Antzinaroan testuinguratuta. Gai horien artean daude, adibidez, biziraupena eta elikadura, etxebizitza, merkataritza-trukeak diruaren jatorria, ordaindu gabeko lanak, ondasun komunen ustiapena, aurrerapen teknikoak edota sortutako arazo sozialak eta Ekologikokoak.</li> <li>- Gizakiaren ekintza historian, subjektu gisa. Gizabanakoek eta gizarte-taldeen garai historiko bakoitzean dituzten zereginak, harremanak, gatazkak, sinesmenak eta baldintzatzaileak Interpretatzea.</li> </ul>


## Ikuspegi ekosoziala

## IKASKUNTZA EKOSOZIALA

\* Biosfera gurtzea. Biodibertsitatearen eta ekosistemen garrantzia baloratzea. Natura gizakiek kontrolatu eta ustiatzeko existitzen dela dioen ideiarekin ikuspegi kritikoa izatea. Antropozentrismoa ekozentrismora igarotzea.

\* Bizi dugun zibilizazio-krisia onartzea.

\* Klima-aldaketa zer den, haren kausak, ondorioak eta konponbideak ezagutzea.



## EBALUAZIO IRIZPIDE EKOSOZIALAK

\* Natura gizakiek kontrola dezaketela edo kontrolatu behar dutela dioen ideiarekin aurrean ikuspegi kritikoa adieraztea.

\* Klima-aldaketa, krisi energetikoa eta materiala, eta biodibertsitatearen galera gizarte-inpaktuak dituzten arazo gisa identifikatzea.

\* Aldaketa klimatikoa zertan datzan azaltzea.

\* Erregai fosilen erreketa klima-aldaketaren kausa nagusi gisa identifikatzea.

\* Klima-aldaketaren zenbait ondorio zerrondatzea.

\* Klima-aldaketarekin lotuta planteatzen diren arazoei aurre egiteko irtenbide indibidualak, komunitarioak eta sozialak diseinatzea.

## OINARRIZKO JAKINTZA EKOSOZIALAK

\* Lurraren eskubideak. Lurra subjektu gisa, ez menderatu beharreko objektu gisa.

\* Natura zaintzearen garrantzia.

\* Klima-aldaketa, krisi energetikoa eta materiala, eta biodibertsitatearen galera gizarte-inpaktuak dituzten arazo gisa.

\* Klima-aldaketaren kausak: erregai fosilak erretzea. Berotegi-efektua handitzea, berotegi-efektuko gasen isurketagatik.

\* Klima-aldaketaren ondorioak: muturreko fenomeno meteorologikoak (lehortekak, uholdeak, bero-boladak, etab.), suteak, izotza urtzea, itsas maila handitzea, basoak galtzea, etab.

\* Klima-aldaketaren aurkako neurriak maila indibidualean: mugikortasun motorizatua murriztea, dieta begetarianoak eta hurbiltasunekoak, kontsumoaren urritasuna, etab. Neurri eraginkorragoak eta irismenaren balorazioa.

Euskal Autonomia Erkidegoko curriculumaren kompetentzia esparruarekin lotura zuzena izateaz gain, dimentsio ekosoziala indartu nahi izan dugu gure ikas esperientzietan. Horretarako, FUHEMek (Fundación Benéfico-Social Hogar del Empleado) proposatutako ikaskuntza ekosozialak ere sartu dira modu osagarrian. Begirada ekosozialaren integrazioan erreferentzia da FUHEM.



Lehen hezkuntza (LH3 eta LH4)

SAIOAK: Aurretik 1 / Ekoetxea 2 / Ondoren 3



## Metodologia



## ESTRATEGIA

EREDU  
PEDAGOGIKOA:Arazoetan  
oinarritutako  
ikaskuntzaGogoetan  
oinarritutako  
ikaskuntza

Gamifikazioa

ESTRATEGIA  
EKOSOZIALAKIkuspegi  
sozioafektiboaEkintzarako  
ikaskuntzaIkaskuntza  
aktiboaIkuspegi holistiko  
eta kritikoa

## TEKNIKAK

## OHIKOAK:

Tailerrak

Ikus-entzunezkoak

Txoko edo  
ingurunezkoak

Entzute kolektiboa

Azalpenak talde  
handietan